

**Getxoko Udala**

**Getxoko Udalaren erosketetako arduradunaren lanpostua betetzeko deialdia onestea.**

2016ko abenduaren 7an 5001/2016 alkatetzaren dekretuaren bidez erabaki hau hartu zen:

**EBAZTEN DUT:**

*Lehenengoa:* Ekonomia eta Ogasun Arloan erosketetako arduraduna lanpostua betetzeko deialdia onestea.

*Bigarrena:* Deialdiaren oinarriak onartzea. Horiek dekretu honen eranskin gisa jaso dira.

*Hirugarrena:* Oinarri osoak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

**ERANSKINA**

**Getxoko Udaleko Ekonomia eta Ogasun Arloko erosketen arduraduneko lanpostu bat (1) betetzeko merezimenduen lehiaketako deialdiaren oinarriak**

**Lehenengoa. — Lehiaketaren xedea**

Oinarri hauen xedea merezimenduen lehiaketa deitzea da, Getxoko Udaleko Ekonomia eta Ogasun Arloko erosketen arduraduneko lanpostu bat (1) betetzeko. Lanpostuak ezaugarri hauek izango ditu:

- Izena: Erosketen arduraduna
- Lanpostuen zerrendako kodea: 105
- Lanpostuaren kodea: 112
- Taldea: A2
- Lanpostu-mailako osagarria: 17
- Osagarri berezia: 20.707,81 ?
- Euskarako hizkuntza-eskakizuna: 3. Derrigortasun data: 2017ko urtarrilaren 1ean.
- Lantokia: Foru kalea, 8
- Eginkizunak:
  - Hierarkikoki gorago dagoenak agindutako betebeharrak eta jarduerak egitea, kide den arloaren eta, orokorrean, korporazioaren funtzionamendu egokirako ezarritako helburu eta programak betetzeko.
  - Beste sail batzuekin eta beste unitate tekniko edota administratibo batzuekin harreman egokiak finkatzea, ezarritako helburuak lortzeko.
  - Agintzen zaizkion programak egiten laguntzea.
  - Gobernu taldeari eta arlo eta zerbitzuetako arduradunei, erabaki estrategiko eta programatikoak hartu behar dituztenean, aholkatzeko ikerketa eta txostenak egitea.
  - Bere lan esparruko ekimenak proposatzea.
  - Herritarren kexei, jokabide eskaerei edota zuzeneko informazio eskaerei arreta ematea, herritarren eskakizunei erantzuna emateko.

**Bigarrena. — Hautagaien betekizunak**

1. Lanpostuen zerrendan azaldutako eta deialdi honetan exijitutako betekizun eta baldintzak betetzen badituzte, Getxoko Udaleko karrerako funtzionarioek parte har dezakete, zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan eta seme-alabak zaintzeko eszedentzian badaude. Era berean, beste administrazio publiko batzuetan nahitaezko eszedentzian edo borondatezko etenaldi eta eszedentzian dauden Getxoko Udaleko karrerako funtzionarioek parte har dezakete, zerbitzu aktibora itzuliz, baldin eta egoera horietarako ezarritako iraupenak bete badute.

**Ayuntamiento de Getxo**

**Aprobar la convocatoria para la provisión por concurso del puesto de trabajo de responsable de compras, del Ayuntamiento de Getxo.**

Mediante decreto de alcaldía 5001/2016, de 7 de diciembre de 2016, se adoptó el siguiente acuerdo

**RESUELVO:**

*Primero:* Aprobar la convocatoria de provisión del puesto de trabajo responsable de compras para el Área de Economía y Hacienda.

*Segundo:* Aprobar las Bases de la convocatoria, que se incorporan como anexo al presente Decreto.

*Tercero:* Acordar la publicación de las Bases Íntegras en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

**ANEXO**

**Bases de la convocatoria de concurso de méritos para la provisión de un (1) puesto de responsable de compras del Área de Economía y Hacienda del Ayuntamiento de Getxo**

**Primera. — Objeto del concurso**

Es objeto de las presentes Bases la convocatoria de concurso de méritos para la provisión de un (1) puesto de responsable de Compras del Área de Economía y Hacienda del Ayuntamiento de Getxo, cuyas características a continuación se citan:

- Denominación: Responsable de compras.
- Código de la relación de puestos de trabajo: 105.
- Código plaza: 112.
- Grupo: A2.
- Nivel de complemento de destino: 17.
- Complemento específico: 20.707,81 euro.
- Perfil lingüístico de euskera: 3 con fecha de preceptividad de 1 de enero de 2017.
- Centro de trabajo: Fueros, 8.
- Funciones:
  - Realizar las tareas y actividades encomendadas por su superior jerárquico en cumplimiento de los objetivos y programas asignados para el buen funcionamiento de al área a la que pertenece y, en general, de la Corporación.
  - Establecer las oportunas relaciones con otros departamentos y unidades técnicas y/o administrativas para la consecución de los objetivos impuestos.
  - Cooperar con el desarrollo de los programas que le sean encomendados.
  - Realizar estudios e informes para asesorar en la adopción de decisiones estratégicas y programáticas al equipo de gobierno y a los responsables de las distintas áreas y servicios.
  - Proponer iniciativas en el ámbito de su trabajo.
  - Atender a los ciudadanos en sus quejas, solicitudes de actuación y/o peticiones de información directas para dar respuesta a sus demandas.

**Segunda. — Requisitos de las personas aspirantes**

1. Podrá participar, siempre que reúna las condiciones y requisitos determinados en la relación de puestos de trabajo y exigidos en la presente convocatoria, el personal funcionario de carrera del Ayuntamiento de Getxo que se halle en situación de servicio activo, servicios especiales y excedencia para el cuidado de los hijos. Asimismo, podrá concurrir, reingresando al servicio activo, el personal funcionario de carrera del Ayuntamiento de Getxo que se encuentre en situación de excedencia forzosa en servicio en otras Administraciones públicas y los suspensos y excedentes voluntarios, siempre que hubieran cumplido el tiempo de permanencia establecido para tales situaciones.

2. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, A2 azpitalde mailan (antzinako B taldea) lanpostua eduki beharko da, Administrazio Bereziaren eskalaren barruan, eta Ekonomia Zientzietako diplomatura edo balioakidea eduki behar da.

3. Hurrengoek ezingo dute lehiaketan parte hartu:

a) Lehiaketan lortu ostean, aurreko bi urteetan plaza hartu duten langile funtzionarioek, jatorrizko administrazioa edo parte hartzen duen kidegoa alde batera utzita. Denbora-muga hau salbuesikoa da langileek lehiaketan lortutako lanpostuari atxikipena galdu badute.

b) Eginkizun-gabetze irmoan dauden funtzionarioek, egoera horretan dauden bitartean.

c) Borondatezko eszedentzian egonik, interes partikularrarenz gain edo familia elkartzearengatik, berriro bueltatzeko behar den gutxienezko denboraldia egon ez diren langileek.

4. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratzen den eguna izango da eskatutako betekizunak betetzeko eta alegatzen diren merezimenduak izateko data.

5. Behin-behineko lanpostua duten funtzionarioek, egoera horretan dauden bitartean, euren kidego eta eskalako lanpostuak betetzeko egiten diren lehiaketetan derrigorrez parte hartu behar dute.

#### **Hirugarrena.—Eskabideak aurkezteko epea eta pertsona onartu nahiz baztertuen zerrenda**

1. Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak, Getxoko alkatari zuzenduta, Getxoko Udaletxeko Erregistro Nagusian edo Herriararren Arretarako Bulegoetan aurkeztuko dira, 15 asteguneko epean, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik aurrera zenbatuta. Halaber, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16.4. artikuluan xedatutako edozein bulegotan aurkez daitezke.

2. Hautagaiek eskaerarekin batera deialdian eskatutako baldintzak justifikatzeko dokumentazioa aurkeztuko dute, Getxoko Udaleko Langile, Antolaketa eta Informatikaren Arloaren esku ez badaude.

3. Ezintasunen bat duten parte-hartzaileek, behar bezala frogatzen badute, eskatutako lanpostua egokitzeko eska dezakete eskabidean, baldin eta antolaketa testuinguruan aldaketa handirik ez badakar.

4. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, hilabeteko epean, Udaleko iragarkien oholtzan pertsona onartu eta baztertuen zerrenda argitaratuko da. Zerrendan hautagaien izena, bi deiturak eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia azalduko dira. Baztertuak izan direnak hamar egun izango dituzte akatsak zuzentzeko.

#### **Laugarrena.—Puntuazioak, baremoa eta merezimenduak**

1. Lehiaketa honetan gehienez 33 puntu lortu ahal izango dira. Lanpostua eskuratzeko, 15 puntuko kalifikazioa beharko da gutxienez.

2. Lanpostuak adjudikatzeko merezimenduen balorazioa baremo honen arabera egingo da:

*Merezimendu orokorrak:* Gehienez 21 puntu. Horietatik gutxienez 9 puntu eskuratu beharko dira lanpostua lortzeko.

a) Gradu pertsonalaren balorazioa

Gradu pertsonala honako baremoaren arabera baloratuko da:

— Gradu pertsonala eskatutako lanpostuaren maila berdina edo handiagoa bada: 3 puntu.

— Gradu pertsonala eskatutako lanpostuarena baino maila bat edo bi txikiagoa bada: 2 puntu.

b) Egindako lanaren balorazioa

Eginiko lana bete beharreko lanpostuaren funtzioen arabera baloratuko da. Balorazio honetatik salbuesikoa da behin-behineko langilearen modura garatutako lana (EFPL 96. artikulua).

2. Para poder tomar parte en el concurso será necesario ostentar en propiedad plaza del Subgrupo de clasificación A2 (antiguo Grupo B) dentro de la escala de la Administración Especial, y estar en posesión de la Diplomatura en Ciencias Económicas o equivalente.

3. No podrá tomar parte en los concursos:

a) El personal funcionario que haya tomado posesión en los dos años anteriores en un puesto obtenido en concurso, con independencia de la administración de origen o del cuerpo desde el que participe. Este límite temporal se exceptúa cuando el personal haya perdido la adscripción al puesto obtenido en concurso.

b) El personal funcionario que se encuentre en suspensión firme de funciones, mientras dure esta situación.

c) El personal que, encontrándose en excedencia voluntaria por interés particular o por agrupación familiar, no haya permanecido el tiempo mínimo exigido para reingresar.

4. La fecha de referencia para el cumplimiento de los requisitos exigidos y la posesión de los méritos que se aleguen, será el día de publicación de la convocatoria en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

5. El personal funcionario con destino provisional vendrá obligado, en tanto permanezca en dicha situación, a participar en los concursos que se convoquen para la provisión de puestos propios de su cuerpo y escala.

#### **Tercera.—Plazo de presentación de instancias y listas de personas admitidas y excluidas**

1. Las solicitudes para tomar parte en este concurso, dirigidas al Sr. Alcalde de Getxo, se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Getxo o en las Oficinas de Atención Ciudadana, en el plazo de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el «Boletín Oficial de Bizkaia». También podrán presentarse en cualquiera de las oficinas a las que se refiere el artículo 16.4 de la Ley del Procedimiento Administrativo Común.

2. Los y las aspirantes deberán acompañar a la solicitud la documentación justificativa de los requisitos exigidos en la convocatoria, salvo que se encuentren en poder del Área de Personal, Organización e Informática del Ayuntamiento de Getxo.

3. Las personas participantes con alguna discapacidad, debidamente acreditada, podrán instar en la solicitud de vacantes la adaptación del puesto o puestos solicitados que no suponga una modificación exorbitante en el contexto de la organización.

4. Expirado el plazo de presentación de instancias, se publicará, en el plazo de un mes, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento la lista de personas admitidas y excluidas. En estas listas constará el nombre y dos apellidos de las y los candidatos y, en su caso, la causa de la no admisión. Quienes hayan sido excluidos dispondrán de un plazo de 10 días para la subsanación de errores.

#### **Cuarta.—Puntuaciones, baremo y méritos**

1. La puntuación máxima alcanzable en el presente concurso será de 33 puntos. Para obtener puesto de trabajo será necesario alcanzar una calificación mínima de 15 puntos.

2. La valoración de los méritos para la adjudicación de puestos se efectuará de acuerdo con el siguiente baremo:

*Méritos Generales:* Máximo a alcanzar 21 puntos de los que se deberán alcanzar un mínimo de 9 puntos para la adjudicación de la vacante.

a) Valoración del grado personal

Se valorará el grado personal conforme al siguiente baremo:

— Por un grado personal igual o superior al nivel del puesto solicitado: 3 puntos.

— Por un grado personal inferior en uno o dos niveles al del puesto solicitado: 2 puntos.

b) Valoración del trabajo desarrollado

Se valorará el trabajo desempeñado en relación con las funciones del puesto a cubrir. Se exceptúa de esta valoración el trabajo desarrollado en calidad de personal eventual (artículo 96 LFPV).

Gehienez 7,5 puntu emango dira, modu hauetan banatuak:

- Lehiaketako lanpostuaren eduki tekniko berdin-berdina duen lanpostu bat izateagatik: 0,75 puntu urte bakoitzeko.
- Lehiaketako lanpostuaren antzeko eduki teknikoa duen lanpostu bat izateagatik: 0,50 puntu urte bakoitzeko.
- Ekonomia eta Ogasuna arloan dagoen lanpostuen bat egiteagatik, 0,30 puntu urte bakoitzeko.

Eginiko lanaren balorazioa, zerikusia duten faktoreei dagokienez, urte osoetan egingo da, hilabete osoak proportzionalki baloratuz eta zatikiak kontuan izan gabe, eta jasotako esperientzia gauzatuak eginkizunen eta egindako betebeharren arabera. Getxoko Udaleko lanpostuetan lortutako esperientzia Langile, Antolaketa eta Informatika Arloak ziurtatuko du.

Beste administrazio publiko batzuetan lanpostuak bete dituzten esperientzia lanpostuaren monografiarekin bat baloratuko da edo, hori izan ezean, lan-esperientzia egiaztatzeko duen dokumentuaren bitartez. Hori dagokion administrazioak egingo du eta garatutako funtzioak nahiz zereginak agertuko dira.

c) Titulazio eta gradu akademikoak

Titulu akademikoak edukitzeagatik gehienez puntu 1 emango da, baremo honekin bat etorritz:

- Deitu den lanpostuaren berezko funtzioekin zuzeneko zerikusia izanez gero: 0,30 puntu titulu bakoitzeko.
- Berezko funtzioekin zuzeneko zerikusirik izan ezean baina bai deitu den lanpostuko jardueraren arloarekin: 0,15 puntu titulu bakoitzeko.

Lehiatzen den lanpostuaren sailkapen taldean sartzen diren titulazioak besterik ez dira baloratuko. Ondorioz, lanpostuaren sailkapen-taldea baino beheragoko edo goragoko titulazioak ez dira baloratuko.

d) Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak

Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak gainditzeagatik, baldin eta lanpostuaren berezko funtzioekin zuzeneko zerikusia duten gaietarako badira (hau da, eskatu den lanpostuan egin beharreko jarduerekin edo haien jarduera arloarekin edo ezagupen arloarekin zuzeneko zerikusia badute), eta asistentziako diploma edota ziurtagiria (edota, balego, aprobetxamendu ziurtagiria) eman bada, 1 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

- 0,062 puntu, 10 ordutik 19 ordura bitarteko ikastaro bakoitzeko.
- 0,125 puntu, 20 ordutik 39 ordura bitarteko ikastaro bakoitzeko.
- 0,25 puntu, 40 ordutik 59 ordura bitarteko ikastaro bakoitzeko.
- 0,50 puntu, 60 ordutik 79 ordura bitarteko ikastaro bakoitzeko.
- 80 ordutik aurrera: 0,75 puntu ikastaro bakoitzeko.

e) Antzintasuna

Administrazio publikoetan lan egindako urte oso bakoitzeko: 0,40 puntu urteko, gehienez 4 puntu. Urtea osatzen ez duten zerbitzuak hilen arabera proportzionalki baloratuko dira.

Xede horrez, karrerako funtzionarioaren baldintza lortu aurreko zerbitzuak eta berez onartutako kidegoan eta eskalan sartu baino lehenagokoak zenbatuko dira. Alegatutako beste batzuekin aidi berean eskaintako zerbitzuak ez dira zenbatuko.

f) Euskara

Bete beharreko xede den lanpostuak ez du igarotako derri-gortasun datarik; hortaz, hizkuntza-eskakizunak soilik balio izango du euskara jakintza mailari, meritu gisa, ematen zaion balorazioa zehazteko, baremo honen arabera:

- 4,5 puntu euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak edukitzeagatik.
- Puntu 2 euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna edukitzeagatik.
- 1 puntu euskararen 1. hizkuntza-eskakizuna edukitzeagatik.

Se otorgará hasta un máximo de 7,5 puntos distribuidos de la siguiente forma:

- Por el desempeño de puesto de trabajo cuyo contenido técnico sea idéntico al del puesto al que se concursa: 0,75 puntos por cada año.
- Por el desempeño de otro puesto de trabajo cuyo contenido sea similar al del puesto al que se concursa: 0,50 puntos por cada año.
- Por el desempeño de puesto de trabajo en el área de Economía y Hacienda: 0,30 puntos por cada año.

La valoración del trabajo desarrollado, en atención a los factores relacionados, se llevará a efecto por años completos, valorando proporcionalmente los meses completos y depreciándose las fracciones, valorándose la experiencia de acuerdo a las funciones asumidas y tareas desempeñadas. La experiencia adquirida en el desempeño de puestos de trabajo en el Ayuntamiento de Getxo lo certificará el Área de Personal, Organización e Informática.

La experiencia de quienes hayan ocupado puestos en otras Administraciones Públicas será valorada de acuerdo con la monografía del puesto, o, en su defecto, mediante el documento acreditativo de experiencia laboral expedido por la Administración correspondiente en el que figuren las funciones y tareas desempeñadas.

c) Titulaciones y grados académicos

Por la posesión de títulos académicos se otorgará hasta un máximo de 1 punto, con arreglo al siguiente baremo:

- Cuando guarden relación directa con las funciones propias del puesto de trabajo que se convoca: 0,30 puntos por cada título.
- Cuando no guarden relación directa con las funciones propias pero sí con el área de actividad del puesto de trabajo que se convoca: 0,15 puntos por cada título.

Solamente serán objeto de valoración las titulaciones adecuadas al grupo de clasificación del puesto al que se concursa. En consecuencia, no serán objeto de valoración ni las titulaciones inferiores ni las superiores al grupo o grupos de clasificación del puesto.

d) Cursos de formación y perfeccionamiento

Por la superación de cursos de formación y perfeccionamiento, que versen sobre materias directamente relacionadas con las funciones propias del puesto de trabajo (relación directa con las actividades a desarrollar en el puesto que se solicita o en el área de actividades de los mismos o área de conocimientos), en los que se haya expedido diploma y/o certificación de asistencia y/o, en su caso, certificación de aprovechamiento, se otorgará hasta un máximo de 1 puntos, con arreglo al siguiente baremo:

- 0,062 puntos por cada curso de 10 horas a 19 horas.
- 0,125 puntos por cada curso de 20 horas a 39 horas.
- 0,25 puntos por cada curso de 40 horas a 59 horas.
- 0,50 puntos por cada curso de 60 a 79 horas.
- De 80 horas en adelante: 0,75 puntos por curso.

e) Antigüedad

Por cada año completo de servicio en las distintas Administraciones Públicas: 0,40 puntos por año hasta un máximo de 4 puntos. Los servicios que no completen el año se valorarán por meses proporcionalmente.

A estos efectos se computarán los servicios prestados con anterioridad a la adquisición de la condición de funcionario de carrera y con carácter previo al ingreso en el Cuerpo o Escala expresamente reconocidos. No se computarán servicios que hubieran sido prestados simultáneamente con otros igualmente alegados.

f) Euskera

El puesto objeto de la provisión no tiene fecha de preceptividad vencida, por lo que el PL servirá exclusivamente para determinar la valoración que, como mérito, se otorga al conocimiento de euskera, según el siguiente baremo:

- 4,5 puntos la posesión del perfil lingüístico 3 y 4 de euskera.
- 3 puntos la posesión del perfil lingüístico 2 de euskera.
- 1,5 puntos la posesión del perfil lingüístico 1 de euskera.

Aurreko balorazioak ez dira metagarriak.

Herri Ardurularitzaren Euskal Erakundearen ziurtagiriaren bidez dagokien eskakizuna frogatzen duten pertsonak, edo apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikulua araberera (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen duena) baloratuta dauden titulu edo eskakizunen egiaztagiria eskabidearekin batera aurkeztu beharko da (jatorrizko agiria, erkatzeko, edo behar bezala erkatutako fotokopia).

#### *Merezimendu bereziak:*

Fase honetan merezimenduak postuaren ezagutza eta trebezia aipagarrienen araberera baloratuko dira. Postua lortu nahi dutenek hurrengo probak egin beharko dituzte:

- Proba praktikoa bat edo gehiago edo memoria bat aurkeztu. Proba hori(ek) baztertzaila(k) izango d(ir)a eta 0 eta 12 arteko puntuazioa jasoko du(te). Gutxienez 6 puntu behar dira.

#### **Bosgarrena.—Merezimenduak eta baldintzak baloratu eta egiaztatzea**

1. Merezimenduak deialdiaren oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren datarikiko erreferentzian baloratuko dira.

2. Eskabidearekin batera adierazpen bat aurkeztu behar da nahitaez, alegatutako merezimenduekin. Getxoko Udaleko Langile, Antolaketa eta Informatikaren Arloaren esku daudenean izan ezik, merezimenduak dokumentuen bitartez egiaztatuko dira parte hartzeko eskaerari erantsiz.

3. Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta justifikatuekiko merezimendu desberdinak ezingo dira baloratu, ezta, epearen barruan alegatu arren, ondoren justifikatzen direnak ere.

#### **Seigarrena.—Balorazio Batzordea**

1. Balorazio Batzordeak merezimenduak baloratuko ditu eta lanposturako adjudikazioaren proposamena egingo du. Aipatutako Batzordea deialdia egiten duen agintaritzak izendatuko du eta ordezkari guztiak aipatuko ditu, modu honetan:

##### *Batzordeburua:*

- Ondare, Kontratazio eta Erosketa Arloko arduraduna.

##### *Batzordekideak:*

- Langileria, Antolaketa eta Informatika Arloko teknikaria.
- Ekonomia eta Ogasun Arloko karrerako funtzionarioa.
- Langileen ordezkaria, langileen ordezaritzak proposatuta.

##### *Idazkaria:*

- Langile, Antolaketa eta Informatika Arloko karrerako funtzionarioa.

2. Balorazio batzordeek deialdiko agintaritzari eskatu ahalko diote adituak izenda ditzala, aholkulari lanak egiteko, hiltzarekin baina boto eskubiderik gabe.

3. Balorazio batzordeen osakeran bere kideen egokitasuna eta kualifikazioa frogatu behar dira. Xede horrez, deialdia egiten duen organoak deitutako lanpostuen eduki funtzionala ezagut dezaten zainduko du. Halaber, deialdian erabiltzen diren hautespeneren eta merezimenduak egiaztatzearen teknikez jakitun izango dira.

4. Balorazio batzordeetako kideek karrerako funtzionario izan behar dute, deitutako lanpostuari dagokion titulazio talde berdinean edo goragoko batean. Ahalegina egingo da kideen erdiak gutxienez deitutako lanpostuen eremu funtzionaleko funtzioak bete izana edo eremu horren inguruko ezagupenak izatea bermatzeko.

5. Balorazio batzordeek independentzia osoz, zuhurtasun tekniko eta objektibotasunez jardungo dute, eta euren proposamenak lotesleak izango dira administrazioarentzat. Balorazio Batzordearen jarduerak duten hautazko iritzi teknikoak alde batera utzi gabe, ebazpenak arrazoitu beharko ditu, deialdiaren oinarriak eta araudia betez.

Las anteriores valoraciones no son acumulativas.

La acreditación del perfil correspondiente mediante certificación del Instituto Vasco de Administración Pública, o los títulos o perfiles que, según el artículo 41 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, están convalidados, deberá aportarse juntamente con la instancia (documento original para su cotejo o fotocopia debidamente cotejada).

#### *Méritos específicos:*

En esta fase, la valoración de méritos se realizará en función de los conocimientos y destrezas más relevantes del puesto. Quienes aspiren a este puesto deberán realizar las siguientes pruebas:

- Una o varias prueba(s) de carácter práctico(s) o la realización de una memoria Dicha(s) prueba(s) tendrá(n) carácter eliminatorio y en su totalidad será puntuada de 0 a 12 puntos, debiendo alcanzar un mínimo de 6 puntos.

#### **Quinta.— Valoración y acreditación de los méritos y requisitos**

1. Los méritos se valorarán con referencia a la fecha de la publicación de las bases de la convocatoria en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

2. A la instancia se acompañarán necesariamente la declaración en la que se relacionan los méritos alegados. Salvo que se encuentren en poder del Área de Personal, Organización e Informativa del Ayuntamiento de Getxo los méritos se acreditarán documentalmentemente con la solicitud de participación.

3. No podrán valorarse méritos distintos a los alegados y justificados dentro del plazo de presentación de instancias, ni aquellos otros que, alegados dentro de dicho plazo, sean justificados posteriormente.

#### **Sexta.— Comisión de Valoración**

1. La valoración de los méritos así como la propuesta de adjudicación del puesto de trabajo será realizada por una Comisión de Valoración designada por la autoridad convocante, así como las personas suplentes de todas ellas, de la siguiente forma:

##### *Presidente:*

- Responsable del Área de Patrimonio, Contratación y Compras.

##### *Vocales:*

- Técnico del Área de Personal, Organización e informática
- Técnico del Área de Economía y Hacienda.
- Representante del personal propuesto por la representación de los y las trabajadoras

##### *Secretario:*

- Técnico del Área de Personal, Organización e Informática.

2. Las comisiones de valoración podrán solicitar a la autoridad convocante que nombre expertos para que actúen como asesores, con voz pero sin voto.

3. La composición de las comisiones de valoración ha de garantizar la idoneidad y la cualificación de sus miembros. Con esta finalidad, el órgano convocante velará para que éstos conozcan el contenido funcional de los puestos de trabajo convocados, así como las técnicas de selección y acreditación de los méritos que se utilicen en la convocatoria.

4. El personal integrante de las comisiones de valoración deberá ser funcionario de carrera de igual o superior grupo de titulación al que esté adscrito el puesto convocado. Se procurará que al menos la mitad hayan desempeñado funciones o posean conocimientos del área funcional de los puestos convocados.

5. Las comisiones de valoración actuarán con plena independencia, discrecionalidad técnica y objetividad, y sus propuestas vincularán a la Administración. Sin perjuicio de la discrecionalidad técnica de que gozan las actuaciones de las comisiones de valoración, sus resoluciones deberán ser motivadas en cumplimiento de la normativa y de las bases de las convocatorias.

6. Balorazio batzordeen eraketa eta jarduna oinarri hauetan ezarritakoaren bidez, aplikatu beharreko araudiaren bidez, eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren legearen bidez arautuko dira.

7. Epaimahaietan parte hartzeagatiko bertaratzeak, kolaborazioak e.a. Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan (zerbitzuaren ondorioz eman beharreko kalte-ordainen dekretuaren hirugarren aldaketari buruzkoa) xedatutakoaren arabera arautuko dira.

#### **Zazpigarrena.— Komunikazioak eta jakinarazpenak**

Prozeduraren ondorioz, Balorazio Batzordearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Getxoko Udaleko iragarkien oholdtan argitaratzu egingo dira.

#### **Zortzigarren.— Adjudikazio proposamena**

1. Balorazio Batzordeak adjudikazio proposamena egingo du eta azkenean puntu gehienak lortu dituenaren aldekoa izango da, betiere deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gutxieneko puntuen berdina edo hortik gorakoa bada.

2. Balorazio Batzordeak erabakia hartu ondoren, bere proposamena Getxoko Udaleko iragarkien oholdtan jakinaraziko da. Erabakiaren kontra langile lehiakideek erreklamazioa jar dezakete hamar laneguneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Erreklamazioak Balorazio Batzordeak ebaztuko ditu.

#### **Bederatzigarrena.— Ebazpena**

1. Balorazioa egin eta, bidezkoa bada, horren kontrako erreklamazioak ebatzi ostean, Balorazio Batzordeak eskainitako lanpostuari buruz adjudikazio proposamena luzatuko dio organo eskudunari.

2. Proposamena jasotakoan, organo eskudunak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du, onetsi ondoren.

3. Deitutako lanpostua hutsi geratuko da baldin eta inork eskatu ez badu edo eskatu arren inork ez badu gutxieneko puntuazioa lortu.

4. Adjudikaziodunek lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko dute. Aurretik beste posturik edukiz gero, galdu egingo dute, salbu eta lanpostu berriaz jabetzeko epea bukatu aurretik beste destino bat eskuratu bada deialdi publikoaren bidez, bat-batean gertatutako ezintasunarengatik, zerbitzu aktiboa ez den egoera batean sartzeagatik, edo arrazoi bereziengatik, deialdia egin duen organoak behar bezala justifikatuak.

5. Lehiakideek, borondatez, lehiaketa osoan parte hartzeari uko egin diezaioke, betiere adjudikatu baino lehen bada. Balorazio Batzordearen aurrean erreklamazioetarako epea aurrez ikusten duten deialdietan, epea amaitu baino lehen uko egin daiteke.

6. Lehiaketaren ebazpena argitaratu ondoko hiru astegunetan utzi beharko da atxikitako lanpostua. Salbuespen gisa, langileria kontuetan eskumena duen organoak epe hori luza dezake, behar bezala arrazoituta inguruabarrak badaude. Zerbitzu arrazoien-gatik jatorrizko lanpostua uzten duten pertsonen benetan utzi arteko denbora eta lanpostu berriaren egondako denbora zenbatuko zaizkie.

7. Lanpostua hartzeko epea aurrekoa utzi eta hurrengo eguna izango da. Ebazpenean zerbitzu aktibora itzultzea aurrez ikusia badago, lanpostua lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo 3 lanegunetan hartu beharko da. Lanpostua hartzeko data baimenak, lizentziak eta oporrak amaitzen diren data atzeratuko da. Gauza bera gertatuko da langile funtzionarioa zerbitzu aktiboaren egoeran izanik, zerbitzuak eraginkortasunez eskaintzea saihesten duen beste egoera batean badago. Salbuespenez, arrazoi justifikatuengatik behar bezala arrazoituak badaude, organo aginpide-dunak horien gozamenaren etetea erabaki dezake. Hala eta guztiz ere, antolaketa arrazoiek gomendatzen dutenean, adjudikazio ebazpenean langile adjudikaziodun guztiak lanpostua uzteko eta hartzeko data zehatzak zehaztu daitezke.

6. La constitución y actuación de las comisiones de valoración se regirá por lo que establecen las presentes Bases, la normativa aplicable y la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

7. Las asistencias, colaboraciones, etc. por participación en tribunales se regirán por lo dispuesto en el Decreto del Gobierno Vasco 16/1993, de 2 de febrero, y Decreto 121/2006, de 13 de junio, de tercera modificación del Decreto sobre indemnizaciones por razón del servicio.

#### **Séptima.— Comunicaciones y notificaciones**

Todas las comunicaciones y notificaciones de la Comisión de Valoración, derivadas de este procedimiento, se realizarán por medio de su publicación en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Getxo.

#### **Octava.— Propuesta de adjudicación**

1. La Comisión de Valoración efectuará la propuesta de adjudicación que deberá recaer sobre quien haya obtenido mayor puntuación final siempre que ésta sea igual o superior a la puntuación mínima exigida en las bases de convocatoria.

2. La propuesta de la Comisión de Valoración se hará pública, mediante acuerdo de la misma, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Getxo. Contra dicho acuerdo el personal concursante podrá reclamar, en el plazo de 10 días hábiles, desde el día siguiente al de su publicación. Estas reclamaciones serán resueltas por la Comisión de Valoración.

#### **Novena.— Resolución**

1. Efectuada la valoración y resueltas, en su caso, las reclamaciones contra la misma, la Comisión de Valoración elevará propuesta de adjudicación del puesto ofertado al órgano competente.

2. Recibida la propuesta, el órgano competente, previa su aprobación, ordenará su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

3. El puesto convocado solo podrá ser declarado desierto, si nadie los ha solicitado o si habiéndolos solicitado nadie ha obtenido la puntuación mínima prevista.

4. Los adjudicatarios deberán tomar posesión en el puesto obtenido en concurso perdiendo la titularidad, en su caso, del puesto anterior salvo que, antes de finalizar el plazo de toma de posesión, se hubiera obtenido otro destino mediante convocatoria pública, por incapacidad sobrevenida, por pasar a una situación diferente a la de servicio activo, o por otras causas excepcionales debidamente justificadas apreciadas por el órgano convocante.

5. Los concursantes, voluntariamente, podrán desistir de su participación en la totalidad del concurso, siempre que sea con anterioridad a la adjudicación. En las convocatorias que prevean un plazo de reclamaciones ante la comisión de valoración, el desistimiento será anterior a la fecha de finalización de este plazo.

6. El cese en el puesto de adscripción deberá efectuarse dentro de los tres días hábiles siguientes a la publicación de la resolución del concurso. Excepcionalmente este plazo podrá ser prorrogado por el órgano competente en materia de personal, cuando concurren circunstancias debidamente motivadas. A quien se le hubiera diferido el cese en el puesto de origen por razones de servicio, se le computará el tiempo hasta el cese efectivo, como desempeñado en el nuevo puesto.

7. La fecha para tomar posesión será al día siguiente del cese. Si la resolución comporta el ingreso al servicio activo la toma de posesión deberá efectuarse dentro de los tres días hábiles siguientes a la publicación de la resolución del concurso. La toma de posesión se diferirá a la fecha de la finalización de los permisos, licencias, vacaciones, o cualquier otra circunstancia en la que se encuentre el personal funcionario que, manteniendo la situación de servicio activo, impida la prestación efectiva de sus servicios. Excepcionalmente, por causas justificadas y debidamente motivadas, el órgano competente podrá acordar suspender el disfrute de los mismos. No obstante, cuando razones organizativas lo aconsejen, en la resolución de adjudicación se podrá determinar la fecha concreta de cese y toma de posesión de todo el personal adjudicatario.

8. Lehiaketa honen bidez lanpostua eskuratzen duten langileek ezin dute beste lehiaketa batzuetan parte hartu, lanpostu berriaz jabetzen direnetik bi urte igaro arte.

#### Hamargarren.— Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan ezarri ez denerako, merezimenduen lehiaketa honako hauetan ezarritakoaren arabera egingo da: Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea; Funtzio Publikoaren Erreformarako Neurrien abuztuaren 2ko 30/1984 Legea; Euskal Administrazio Publikoaren Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Araudi Orokorra, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak onetsia.

#### Hamailgarren.— Aurkaratzea

Deialdi hau eta bere oinarriak, eta haietatik ondorioztatutako egintzak inpugnatu egin daitezke, 39/2015 Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko Legean ezarritakoaren arabera.

Getxon, 2016ko abenduaren 12an.—Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako zinegotzia, Alkatearen 2985/2015 Dekretu bidez eskuordetu, Inazio Uriarte Gorostiaga

(II-5552)

Bide-marketarako ohiko materialak hornitzeko (seinale horizontaletarako pintura) esparru-akordioa.

1. *Erakunde adjudikatzailea*
  - a) Erakundea: Getxoko Udala.
  - b) Espedientea izapidetzen duen dependenzia: Kontratazio Zerbitzua.
  - c) Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko:
    - 1) Dependenzia: Kontratazio Zerbitzua.
    - 2) Helbidea: Fueros kalea, 8.
    - 3) Herria eta posta-kodea: Getxo-48992.
    - 4) Telefonoa: 944 660 040.
    - 5) Telefaxa: 944 660 047.
    - 6) Posta elektronikoa: contratación@getxo.eus
    - 7) Kontratazailearen profilaren Interneteko helbidea: www.getxo.eus / perfil del contratante / contratos en periodo de licitación.
    - 8) Agiriak eta informazioa eskuratzeko azken eguna: Eskaintzak jasotzeko azken eguna.
  - d) Espediente-zenbakia: 5750.
2. *Kontratuaren xedea*
  - a) Mota: Hornidura.
  - b) Xedearen azalpena: Enpresa bat hautatzea, gehienezko prezioak finkatzea, eta akordio horretatik sortzen bide-marketarako ohiko materialak hornitzeko (seinale horizontaletarako pintura) kontratuak arautuko dituzten oinarriak ezaritzea.
  - c) Lotezko banaketa: Ez.
  - d) Burutzeko tokia: Getxo.
  - e) Burutzeko epea: Bi urte.
  - f) Luzapena: Bai, elkarren segidako bi alditan, aldi bakoitzeko iraupena urtebetekoa.
  - g) Esparru Akordioa: Ez.
  - h) Erosketen sistema dinamikoa: Ez.
  - i) CPV: 34928470-3 ,34928471-0.
3. *Izapidetzea, prozedura eta adjudikatzeko modua*
  - a) Izapidetzea: Arrunta.
  - b) Prozedura: Esparru-akordioa.
  - c) Enkante elektronikoa: Ez.
  - d) Adjudikatzeko irispideak: Administrazio klausulen pleguan xedatutakoaren arabera.

8. El personal que obtenga un puesto de trabajo a través de este concurso no podrá participar en otros concursos hasta que hayan transcurrido dos años desde que tomaron posesión en el nuevo puesto.

#### Décima.— Normativa aplicable

En lo no previsto en estas Bases, la realización del concurso de méritos se ajustará a lo establecido en la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca; en la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública; y en el Reglamento General de Provisión de Puestos de Trabajo del Personal Funcionario de las Administraciones Públicas Vascas, aprobado por Decreto 190/2004, de 13 de octubre.

#### Decimoprimer.— Impugnaciones

La presente convocatoria y sus Bases y los actos derivados de las mismas podrán ser impugnados de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común, y en la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Getxo, a 12 diciembre de 2016.—El concejal de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos, por delegación en virtud del Decreto de la Alcaldía número 2985/2015, Inazio Uriarte Gorostiaga

(II-5552)

Acuerdo marco para el suministro de materiales convencionales para marcas viales (pintura de señalización horizontal).

1. *Entidad adjudicadora*
  - a) Organismo: Ayuntamiento de Getxo.
  - b) Dependencia que tramita el expediente: Servicio de Contratación.
  - c) Obtención de documentación e información:
    - 1) Dependencia: Servicio de Contratación.
    - 2) Domicilio: Calle Fueros, 8.
    - 3) Localidad y código postal: 48992-Getxo.
    - 4) Teléfono: 944 660 040.
    - 5) Telefax: 944 660 047.
    - 6) Correo electrónico: contratación@getxo.eus
    - 7) Dirección de internet del perfil del contratante: www.getxo.eus / perfil del contratante / contratos en periodo de licitación.
    - 8) Fecha límite de obtención de documentos e información: La fecha límite de recepción de ofertas.
  - d) Número de expediente: 5750.
2. *Objeto del contrato*
  - a) Tipo: Suministro.
  - b) Descripción del objeto: La selección de una empresa, la fijación de precios máximos y el establecimiento de aquellas bases que regirán los contratos de suministro de materiales convencionales para marcas viales (pintura de señalización horizontal) que de aquél se deriven.
  - c) División por lotes: No.
  - d) Lugar de ejecución: Getxo.
  - e) Plazo de ejecución: Dos años.
  - f) Prórroga: Sí, dos periodos sucesivos de un año de duración cada uno de ellos.
  - g) Acuerdo marco: No.
  - h) Sistema dinámico de adquisición: No.
  - i) CPV: 34928470-3 ,34928471-0.
3. *Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación*
  - a) Tramitación: Ordinaria.
  - b) Procedimiento: Acuerdo marco.
  - c) Subasta electrónica: No.
  - d) Criterios de adjudicación: Según lo dispuesto en el pliego de cláusulas administrativas.